

ibilaldiak

Ekainak 24-25

BIZKAIA

Balmaseda (Balmaseda M.T.) • Hecho bailara. Asteburu osorako.

Basauri (Baskonia) • Iturriotz, Pagoeta, Indamendi, Zarautz. Tel: 94-4495728.

Bilbo (Aldatz Gora) • Ur mugen zeharkaldia. Aizkorri mendikatea. Otzaurte, Aitzuri, Arbelaitz, Enaitz, Arantzazu. Tel: 94-4168099.

Bilbo (Egusentia) • Quintanilla Valdobres, Dulla (1.143 m).

Bilbo (Mendizale Zoroak) • Oiz (1.026 m). Gaueko martxa.

Bilbo (Eguzki-Lorea) • Babarrunjana.

Bilbo (Bidea Orientazio Taldea) • Orientazio festa Garaion (Araba).

Bilbo (Juventus) • Enciso, El Palo mendikatea (1.266 m). Cornago.

Galdakao (Ganguren) • Collarada (2.886 m). Tel: 94-4562326.

Gernika (Goi-Zale) • Belatxikieta.

Getxo (Itxas-Argia) • Zugarramurdiko leizeak, Sara. Mendibil (617 m), Atxuria (756 m). Tel: 94-4303411.

Lemoa (Ganzabal) • Zintzur jaitziera Panticosan. Tel: 94-6313009.

Markina-Xemein (Artibai) • Pirinioak. Panticosa. Bacias (2.760 m), Garmio Negro (3.051 m).

Sestao (Alpino Club) • Aguas Haitza (2.155 m), Torres Haitza (2.104 m). Tel: 94-4721379.

Sodupe (Gallarraga) • Arrateko Ama. Finalista eguna.

GIPUZKOA

Bergara (Pol-Pol) • Pirinioetara, asteburu osorako. Cauterets, Panticosa. Tel: 943-764851.

Donostia (C.V.Camping) • Midi d'Ossau mendien itzulia. Aneou mendatea, Col de Soum de Pombie, Col de L'ou, Plaine de Bious, Lac de Bious Artigues, Col de Suzon, Pombie aterpea, Col de Soum de Pombie, Aneou mendatea. Tel: 943-428479.

Donostia (C.V.Camping) • Ordesa, Olas gaina, Soum de Ramon, Gipuzkoako Goimendi Eskolako gidariek. Tel: 943-428479.

Donostia (Antiguako Mendizaleak) • Basasagar, Irubelaskoa. Tel: 943-211440.

Errenteria (Urdaburu) • Larunbatean Sabinanigo, Santa Orosia (1.921 m), Olivan. Igandean Canfranc herria, Lecherin (2.567 m), Canfranc estazioa. Tel: 943-527879.

Villabona (Aizkardi) • Midi d'Ossau. Asteburu osorako.

NAFARROA

Altsasua (Mendigoizaleak) • Altsasu, Arantzazu.

Iruñea (Nafarroa K.E.) • Angel Oloron aterpea, Hiru Erregeen Mahaia.


Sakana (Mendizaleak) • Aiako Harria.

Uztailak 1-2

BIZKAIA


Basauri (Baskonia) • Tresviso eta Samelar-era igotzea (2.227 m). Tel: 94-4495728.

bidaztiaren orriak



Izenburua: Las horas Mangbetu. **Egilea:** Pedro A. Munar. **Argitaletxea:** Ediciones B. **Orriak:** 352. **Prezioa:** 1.635 pta. (65 lib)

Pedro A. Munar, Nautika eskolan lizentziatu berria, kargaontzi batean itsasoratu zen 1973an, Montrealen. Afrikako mendebaldeko kostaldea zeharkatu zuten. Huraxe izan zen Elias kapitainarekin eginiko lehen bidaia. Eliasek abildade berezia zuen ontzikideen artean haserreak eta borrokak sorrarazteko, eta marinelen arteko giroa pozoitzeko. Barkua behin baino gehiagotan hondora eramatear egon zen Elias kapitaina, eta lur hartzen zutenean edonor leherrarazteko moduko juergak egiten omen zituen. Liburuan Afrikako kostaldeko abenturak azaltzen ditu: Kongoko mertzenarioak, Sudango kontzentrazio esparru batean igarotako egunak...



Izenburua: Correr: El libro completo de Runner's World. **Egilea:** Amby Burfoot. **Argitaletxea:** Desnivel. **Orriak:** 286. **Prezioa:** 2.450 pezeta (98 lib).

Korrika egiteko oinetako pare bat aski da, baina liburu honetan ariketa dibertigarriagoa eta ero-soagoa egiteko aholku ugari topatuko dituzu: sasoian mantentzeko gomendioak, materiala, elikadura, emakumeentzako aholkuak, indarra, abiadura eta erresistentzia nola landu... Maratoi bat prestatzeko gomendioak ere azaltzen ditu. Azken batean, edonoren esku dagoen ariketa hau errazteko gidaliburua da Correr hau.



Bilbo (Eguzki Lorea) • Atxondo, Besaide, Anboto. Tel: 94-4122738.

Bilbo (Juventus) • Leongo mendiak. San Emiliano, Cirvanal (2.081 m), Fontan (2.417 m).

Galdakao (Ganguren) • Koltiza, Turtzioz. Tel: 94-4562326.

Gernika (Goi-Zale) • Europako Mendiak. Ekialdeko mendigunea. Tel: 94-6396467.

Leioa (Leioa M.T.) • Guardetxe, Txamen (1.299 m), Lizarrusti.

Meatzaldea (Meatzal-Fabrik) • Belate, Txaruta, Larrazmendi.

Sestao (Alpino Club) • Araia, Aratz (1.433 m), Allarte (1.231 m), Araia. Tel: 94-4721379.

GIPUZKOA

Andoain (Euskaldunia) • Linza, Txamantxoia (1.945 m) edo Gorreta de los Gabachos (2.262 m). Tel: 943-592232.

Donostia (C.V.Camping) • Les Gloriettes, Pimené, Gavarnie. Tel: 943-428479.

Hernani (Mendiriz Mendi) • Gavarnieko mendatea, Goriz, Pico de las Olas (3.002 m), Pine-ta. Tel: 943-332745.

Pasai-Antxo (Jaizkibel) • Jaizkibel eguna.

Trintxerpe (Trintxer) • Urkulu (1.419 m).

NAFARROA

Altsasu (Mendigoizaleak) • Anboto.

Lizarra (Lizarra M.T.) • Infernuak. (Pirinioak).

ikastaroak

Ekainak 24-25

Donostia (Mendiak eta Herriak) • Harkaitz eskalada ikastaroa. Hobekuntza. Eskalada Klasikoak: Egino eta Etxauri. Gaiak: Eskalada ikastaroen jarraipena. Bilerak antolatu. Hainbat luzeratako eskalada bideak. Tel: 948-513233.


Uztailak 1-2

Donostia (Mendiak eta Herriak) • Glaziarretan segurtasunez ibiltzeko ikastaroa. Gabietou glaziarrean. Gaiak: glaziarretan sokaz elkarlotzeko erak. Autoreskatea glaziarretan. Behar-beharrezko materiala. Tel: 948 513233.

lehiaketak

Irailaren 18ra arte

Aramaio (Udala) • Aramaiko III Sagitario Saria, bidaien inguruan. Euskaraz eta gaztelaniaz sari bana izango da 125.000 pezetakoa. Mendebaldeko Europa baino urru-



Pirinioak V aurkeztu dute

Elkarlanean argitaletxeak herenegun aurkeztu zuen, Baionan, Miguel Anguloren Pirinioetako bildumaren bosgarren alea. Oraingoa Val d'Arandik Andorrraraino doa. Bat baizik ez da falta, beraz, mendikate osoa biltzeko. Oraingok 300 orrialde ditu, denak kolorezko argazki eta mapekin. Oraingoz, frantsesez argitaratu da bildumako bosgarrena, baina aurki izango da euskaraz eta gaztelaniaz ere.



2

1

3

Cruz eta Ciudad garaile

Esther Cruz murtziarrak eta Cesar Ciudad madrildarrak irabazi zuten aurreko asteburuan Donostian jokaturako Espainiako Kopako lehen proba. Leire Agirrek hirugarren postuarekin etsi behar izan zuen, eta Patxi Usobiaga laugarren izan zen mutiletan, Dani Andrada eta Pablo Barberoren atzetik. Free Open proba ere Cruz eta Ciudadek irabazi zuten. 81 eskalatzailak hartu zuten parte Donostian; neskak 16.

nago bidaiatu duen edozeinek har dezake parte. Lanek gehienez 45 orrialde izango dituzte eta gutxienez 35. Saritutako lanekin, bai euskarazkoarekin eta bai gaztelaniazkoarekin, liburu bana

argitaratuko da. Horrez gain, ibiltariaren esperientzia lehenetsiko duen beste sari bat egongo da: Tashkent edo Teheranerako bidaia, Lanak Aramaio Udalera bidali behar dira (01160-Araba).